

# Eskoletako jolastokiak eta genero-rolak:

## Diseinuaren eragina genero-nortasunaren eraikuntzan

*Laburpena: Jolastokian umeak modu librean ibiltzen dira jolasean, baina haien jokamoldea aztertzen badugu, azaleko libertate horrek gizartean errotuta ditugun genero-rolak errepikatzen dituela konturatuko gara. Mutilek espazio zabal eta zentralenak hartu ohi dituzte baloiekin jolasean, neskak bazterretan geratzen diren bitartean. Espazioen diseinuk eragin handia dauka umeen portaeran, bai eta hori aldatzeko ahalmena ere.*

*Abstract: Children use to play free at the playground, but if we analyze their way of moving and playing, we will see that gender roles are so rooted in their behaviour. Boys usually play with the ball and take wider and more central spaces, while girls use to stay at the borders. The space design has a huge effect on the way children act, and also the power to change it.*



Itsaso Larramendi Elexgaray  
Arkitekturaren lizentziatua

*Gako-hitzak: Genero-rolak, Jolastokiak, Hezikidetzaren unibertsala.*

*Keywords: Gender-roles, Playgrounds, Universal co-education.*

Jasotze data: 2016-04-06  
Onarpen data: 2016-05-04



Urteak dira eskoletako jolastokietan agertzen diren jokabideak genero-perspektibatik aztertzen direla. Bai hemen bai atzerrian, hainbat ikerketa gauzatu dira<sup>1</sup> umeek aisialdi-eremu hauek nola erabiltzen eta okupatzen dituzten ulertzeko asmoz, generoak duen eragina aintzat hartuz.

Espazioaren erabileran beronen diseinua bezain baldintzatzailea da jaiotzatik jasotzen dugun genero-hezkuntza. Emakume eta gizon bezala hezten gaituzten heinean erlazionatzeko, mugitzeko, adierazteko gaitasun ezberdinak garatzen ditugu, eta konturatu ez arren espazioaren okupazio ezberdindua eragiten du horrek. Mutilei akziora bideratutako ekintzak sustatzen zaizkie batez ere, botereguneetan egoteko behar diren ezaugarriak lantzen dituztenak: borroka, indarra, abilezia... Mugitzera eta espazio gehiago okupatzera bultzatuak dira, bai plano fisikoan, bai diskurtsoan eta bai esfera publikoaren alor orotan. Emakumeei, aldiz, zaintzekin eta edertasunarekin erlacionatutako aktibitateak sustatzen zaizkie, pasibotasuna, lasaitasuna eta aktibitate fisiko gutxiago behar izan ohi dutenak. Balio horiek hezkuntzaren bitartez transmititzen dira, baita gizartean eraikitako erreferente eta errepresentazioen bitartez ere.

Mutil eta neskek jolasean espazioa nola okupatzen duten aztertzeko ikerketa interesgarria egin zuten Miren Vives eta Patxi Galarraga arkitektoek Elgoibarko Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkartearekin batera Elgoibarko kaleetan,

Elgoiberdin proiektuaren baitan<sup>2</sup>. Generoa eta adina kontuan hartuz, herriko plazetan umeek zein espazio eta nola betetzen zituzten dokumentatu zuten. Emaitzei erreparatuz, baieztatu zitekeen pilotekin jolasten zuten mutilek eremu zabalagoa hartzen zutela eta gehienetan neskak plaza bazterretan geratzen zirela geldirik, mutilei begira, mugikorrarekin jolasten edo barraskilo eta zizareak zaintzen.


Eskolan, jokamolde ezberdin horiek umeak modu librean jolasten direnean egiten dira nabarmenagoak, beren nortasuna aske azaltzen dutenean. Eskola-orduetan, hezkuntza intelektuala gauzatzen denean, eremua arautuago dago eta umeek ez daukate mugitzeko eta erlazionatzeko horrenbesteko askatasunik. Patio-orduetan, aldiz, ez dago arau espliziturik, elkarbizitza bermatzeko errespetu-arauak ez badira. Gatazkak eta nagusikeriak handitu egiten dira: mutilenak neskekiko, ikasle zaharrenak gaztekekiko, ikasle zakarrenak lasaiekiko... Espazio hauek ez dira ikasteko gune bezala diseinatzen, aisialdirako espazio modura baizik, ulertu gabe aisialdian ere ikasi egiten dela. Garapen pertsonal eta sozialarekin lotutako abilitateak garatzen dira, ikasleek berdinekiko dituzten erlazioetan eta taldeetan integrazteko gaitasunean eragina dutenak. Tutoretza-orduetan irakasleekin errespetua, lankidetzaren, solidaritatea eta berdintasuna bezalako balioen inguruan ikasitakoa ez da barneratzen, praktikan jartzen ez bada. Jarrera horiek eskola-ordutegi guztian zehar bermatu behar diren arren, jolastokia leku ezin hobea da horretarako, umeek beren izatea modu libreagoan adierazten baitute hor, baita gainerakoei euren buruaz adierazi nahi dietena ere, irakasleen gidaritzapean egon gabe (Olano, 2007: 33).

<sup>1</sup> Gurean, besteak beste: Hernaniko Udalak egindako *Hezikidetzaren eta espazioaren inguruko baliabide gida*, Projekta arkitektura-estudioak gauzatuak *Elgoiberdin* ekimena, Zamakola eskolan aurrera ateratako *El patio escolar, un espacio educativo* proiektua. Atzerrian erreferentzialak dira Austrian, Danimarkan eta Finlandian ikas-eremuen inguruan egindako hainbat ikerketa.

<sup>2</sup> Honen inguruko informazio zabalagoa lortzeko ikus: <elgoiberdin.wordpress.com>.



**Irudia** ~ Bilbo inguruko ikastola baten jolastokia. Azalera handia izan arren, gehiengo kirol-zelaiek hartzen dute. Zoladuraren gogortasuna ere aipatzekoa da. **Iturria** ~ Bing Maps.




### Arau instituzionalak genero-rolen euskarri


Espazioaren diseinuaren atzean beti dago erabileraren ikusmolde bat eta eskola-patioen kasuan nabarmena da zer aktibitate gailentzen diren. Kirol-zelaiek, eta futbolak batez ere, espazio librearen azalera handiena hartu ohi dute eta zentroan kokatzen dira, guztien begiradapean. Ekintza maskulinoek, beraz, indar sinboliko handiena duten espazioak betetzen dituzte, neskek eremu txiki eta marjinalagoak erabiltzen dituzten bitartean, identitate argirik ez dutenak (Hernaniko Udala, 2003: 4). Baloiri ostikoka ibiltzeak espazio handia eskatzen du; soka-saltoan, aldiz, plazaren ertzean egin daiteke. Gainera, lurrian marraztutako marrek eskubideak ematen dizkiete jolasean ari direnei (Vives eta Galarraga, 2015: 23), eta soilik jolas espezifiko batzuetarako marrak margotzean, ekintzak definitu eta mugatu egiten dira nolabait. Jolasen arteko hierarkia ezartzen da horrela eta mailaketa horren goiko aldean joko maskulinoak daude. Hierarkia horrek eragina du baita patioen materialtasunean ere. Futboleak jokatu ahal izateko, dimentsio minimo batzuk dituen zoladuradun kantxa eraiki behar da, legeak behartuta<sup>3</sup> gainera, askotan patioen azaleraren gehiengo hartzen duenez gainerako espazioa aukerarik gabe uzten duena. Horrela, berdeguneak, ura, area edo kautxua txertatzeko aukerak murriztu egiten dira, aniztasuna mugatuz eta patio gogorak sorraraziz<sup>4</sup>. Erabakiak, beraz, ez dira kasualitatez

<sup>3</sup> Erregimen orokorreko ikastetxeen baldintzak ezartzen dituen 1537/2003 Errege Dekretuak jolastokien inguruan zehaztutakoa zera da: hezkuntza-maila orotan hauek izan beharreko azalera minimoa eta Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko zentroetan gutxienez 44 x 22 metroko azalera minimoko espazioa utziko dela kirol anitzeko pista bezala erabili ahal izateko <boe.es/diario\_boe/txt.php?id=BOE-A-2003-22599> (Kontsulta: 2016-03-29).

<sup>4</sup> Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetza Planaren arabera ere «Nabarmentzen den beste alderdi bat da ikastetxeetan futboleak jokatzeko ekipamendui esleitzen zaizkien bitarteko eta baliabideetarako eta beste jarduerak batzuk egiteko erabiltzen direnaren (natura-guneak, lorategiak, harremanetarako eta jolasteko jarduerak) arteko desoreka» (Eusko Jaurlaritza, 2013: 16).



**Irudia** ~ Skade eskolaren jolastokia. Kirol-zelaiak dauden arren, beste ekintza batzuetarako guneekin tartekatzen dira. Zoladura-ugaritasuna eta naturaren integrazioa nabarmentzekoak dira. **Iturria** ~ Bing Maps.



Irudia - Umeen jokamolde estereotipatua: mutilak zentroan eta neskek bazterretan.  
Egilea - Itsaso Larramendi .

hartutakoak, gure imajinarioan duguna errepikatuz sortzen dira eta lege eta arauen bitartez sostengatzen dira.

Jolas-espazioen diseinu- eta kudeaketa-irizpide hauek gizartearen balio hegemonikoak erreproduzitzen dituzte hezkuntza-espazioetan, berdintasun eta eraldaketarako espazio izan beharko luketen horietan. Eta ez da soilik emakume-gizon dikotomia indartzen dutela, gizon molde nagusitik at geratzen den pertsona ororen bazterketa ere eragiten dute, izateak duen aniztasunari ez ikusiarena eginez.

### Berdintasunera bidean zenbait proposamen

Errealitate honen aurrean, orotariko planteamenduak daude eskoletako patioak eraldatu eta berdintasunerako espazio bihurtzeko. Helburu nagusia hierarkiak apurtzea da erabileran gertatzen diren genero-estereotipoekin bukatuz, eta hori lortzeko, plano fisikoan esku hartzea bezain garrantzitsua da plano sinbolikoari arreta jartzea.

Euskal Herrian zenbait eskola hasi dira jada patioaren erabilera arautzen jolasak txandakatuz, espazioen banaketa erregulatuz eta futbolera jokatzeko egunak mugatuz. Arauak ezartzearekin batera ikasleei jolas berriak erakustea ezinbestekoa da, mistoak direnak (adina, sexua, arraza...) eta lehia oinarritu beharrean lankidetzaz bezalako balioak sustatzen dituztenak (Hernaniko Udala, 2003: 4). Horrenbestez, dinamizatzailearen irudia funtsezkoa da proposamen horiek modu eraginkorrean ezartzeko, eta, ondorioz, patio-orduetan zaintzaile-lana egiten duten pertsonen parte-hartzea eta prestakuntza espezifikoak bermatu behar dira. Patioa ikasteko eta harremanak, emozioak eta jokabideak lantzeko espazioa dela ulertzen bada, arduradunak diren pertsonak ere prozesu eraldatzaile horren parte egin behar dira.

Horrez gain, genero-rolen eragina lausotzeko, garrantzitsua da sexu bati zein besteari ezarritako jarduerak eta balioak

iraultzea. Alde batetik, neskek ariketa fisikoa egitera bultzatu behar dira, kirolak dituen onurez gozatu eta txikitatik har dezaten gorputz-ekintzak egiteko ohitura. Bestetik, zaintza bezalako balioak, tradizionalki feminitatearekin lotu direnak, aintzat hartu eta zentral bilakatu behar dira gainerako jarduerekin batera. Espazioa eman behar zaio lasaitasunari baliozko aspektu bezala. Baina nola eragin genero-rolen iraultzeari espazioaren diseinuaren bitartez? Arkitekturak susta dezake pertsonen arteko berdintasuna? Azaldu bezala espazioa ez da neutroa, baldintzak ezartzen ditu eta pertsonen arteko elkarrekintza moldatzeko gaitasuna dauka. Erlazio berdinak sortuko al lirakeke, adibidez, patioaren erdian futbol-zelaia beharrean baratzea izanez gero? Naturan jolasteak zaintza eta errespetua bezalako balioak indartzen ditu eta berdintasunaren alde egiten du jostailuen beharra ekiditen delako, jostailuak baitira askotan jolasa eta umeen portaera baldintzatzen dituztenak. Helburua ez da pilota-jokoak desagerraraztea, baizik eta maskulinitatearekin hain lotuta ez dauden joko eta ekintzak sustatzea eta futbolari esleitutako boterea gutxitzea, adibidez, zelaia mugatzen duten marrak lausotu edo desagerraraziz. Ederki dakigu bi jertsek ere porteriaren funtzioa bete dezaketela, edo zelaia klarionarekin marratuz horren tamaina eta kokapena negoziatua eta aldakorra izan daitekeela.

### Espazio anitzak sortuz, Skade eskola eredu

Soilik kirol-kantxa proiektatzen badugu, futbola gailenduko da. Askotariko ezaugarriak dituzten espazioak proiektatzen baditugu, aldiz, interakzio mota gehiagori emango diegu bide. Hortaz, interesgarria da jarduera espezifikoetarako espazioak ezberdintzea: mugitzeko, komunikaziorako, erlaxatzeko, ikasteko... hezkuntza soziala, pertsonala eta naturarekiko ahalbidetuko dituzten guneak aurreikustea, guztiei garrantzia bera emanez. Zentzu horretan aipatzekoa da Danimarkako Skade eskolan Rosan Bosch arkitektura-estudioak diseinatutako jolas-eremua. Adin ezberdinetako umeak ariketa fisikoa egitera bultzatzea du helburu,



Irudia - Hierarkia eta estereotipoen apurketa: sexuaz haratago umeen jokamolde aniztasuna.  
Egilea - Itsaso Larramendi .

kirola zentzu zabalean ulertuz, ahalik eta ume gehienek erakargarri aurki dezaten. Joko-aukera zabala eskaintzen du: parkour pistak, eskalatzeko hormak, igo daitezkeen egitura metalikoak, zeharka daitezkeen kubo zulatuak... Futbol eta saskibaloia kantxak ere badauden arren, kopuru mugatua dute eta jolas-eremuaren pieza bat gehiago baino ez dira. Zoruan material zurrun eta bigunak konbinatzen dira, belarra eta lurra ere baliozko zoladura kontsideratuz, eta, horrela, sustatu nahi den ekintza motaren arabera eremu lau zein gorabeheratsuak proiektatzen dira. Jarduera guztiak parke berean daude integratuta eta kirolguneen artean harremanetarako espazioak tartekatzen dira, deskantsatzeko bai eta elkarrekintza sozialari abagunea emateko ere. Egote soila ere zilegi izan dadin. Horrenbestez, ikus daiteke jolasleku horretan interes berezia jarri dela genero-erreferentziarik gabeko ekintzak sustatzeko, ume txikientzat joko-eremuak egokitzeko eta adin eta genero ezberdinetako umeen artean elkarguneak sortzeko.

Inportantea da, beraz, diseinatzen diren espazioak berauek betetzen dituzten gorputzekin batera ulertzea, erabiltzaile estandarren kategoriatik haratago joan eta botere-harremanek zeharkatutako banakoetara hurbiltzea. Abiapuntu honetatik ekinez baino ez baikara hasiko berdintasunean jolasten.

///

## Bibliografia

Eusko Jaurlaritza (2013): Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana, <hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> (Kontsulta: 2016-03-08).

Hernaniko Udala (2003): Berdintasuneko jolasa. Hezkidetzaren eta espazioaren inguruko baliabide gida, <hernani.eus> (Kontsulta: 2016-02-25).

Olano, A (2007): «El patio escolar, un espacio educativo», El Busgosu, 6, 30-35.

Vives, M. eta Galarraga, P. (2015): «Eskoletako kanpo espazioak eta hezkidetzaren», M8 monografikoa, STEILAS, 20-23.